

BERANGON MURAL ARTISTIKO BAT EGITEKO LEHIAKETARAKO DEIALDIAREN OINARRIAK

1. SARRERA

Martxoaren 8a, emakumearen egunaren ospakizuna dela eta, Berangoko Udalak mural lehiaketa bat antolatu du. Egun horretan egingo dira, eta berdintasuna izango da gaia. Lehiaketaren irabazleak edo irabazleek, sari bezala, Berango Merana Ikastetxe publikoan mural bat egin ahal izango dute. Ekintza honen bitartez, kulturaren eta gizarte gaien alde hartua duen ezinbesteko konpromisoa erakutsi nahi die Udalak herritarrei, eta alde kulturala eta gizatiarra sartu, obra publikoetan. Jarraian agertzen den dokumentazioaren bitartez, lehiaketaren oinarriak jakinarazten zaie lehiakideei.

2. XEDEA

Deialdiaren xedea da emakumearen eguna ospatzea, mural lehiaketa publikoa baten bitartez, eta ondoren, lehiaketako irabazleari, sari bezala, Berango Merana Ikastetxe Publikoko kanpoko hormetan mural artistiko bat egin dezala eskatuko zaio, saskibaloï kantxan alboan dagoen horma txiki batean, eta sarrerako fatxadan.

3. GAIA

Muralaren gaiak emakumearen egunaren ospakizunarekin eta berdintasunaren aldarrikapenarekin izango du zerikusia; halaber, kontuan izango da lehiaketaren xedea den murala egokiro integratzen dela horretarako aukeratu den lekuan. Berdintasunaren irudi bezala udalak erabiltzen duen logotipoa tximeleta bat da; hori dela eta, modu batean edo bestean, tximeletarekin zerikusia duen formaren bat edo siluetaren bat agertu beharko da muralean, atzealde bezala edo motiboan bertan ere, baina beti modu librean eta sormena erabiliz eginda.

4. DEIALDIA

Deialdia publikoa eta irekia izango da. Aurkeztutako eskabideen artean, lehiaketaren parte-hartzaileak aukeratuko dira martxoaren 1ean. Lehiaketa martxoaren 9an egingo da goizeko bederatzietatik arratsaldeko zazpiak arte. Amaitzean, lau lan finalistak aukeratuko ditu epaimahaiak. Hurrengo egunean, martxoaren 10ean, lehiaketaren irabazlea aukeratuko da finalisten artean, herritarren bozketa baten bitartez.

5. DEIALDIA EGITEN DUEN ERAKUNDEA

Berangoko udalak egiten du deialdia.

6. DOKUMENTAZIOA AURKEZTEA ETA BIDALTZEA

Proiektuak aurkezteko epea, udalaren webgunean argitaratzen den biharamunetik hasita 2019ko otsailaren 28ra arte izango da. Proiektuak, bozeto xume batean aurkeztu beharko dira, edo argazki batean muntatutako irudietan, artxibo erantsi bezala. Udaleko eta bere Kultura Saileko webgunean argitaratuko den inskripzio-orriari erantsiko zaizkio.

7. LEHIAKETAKO MURAL IRABAZLEAREN KOKAPENA.

Berango Merana Ikastetxe Publikoan, perimetroko hormetan, kantxan alboko hormatxoan eta sarrerako fatxadan, 441,50 metro karratuko azalera osoarekin. Perimetroko horma baxuak eta luzangak, kantxak eta sarrera, eta fatxadako hiru horma.

8. LEHIAKETAREN KOKAPENA, ETA HORRETARAKO ERABILIKO DIREN TAULEN NEURRIAK ETA ANTOLAKETA

Berangoko Moreaga Plazan ipiniko dira, deialdian hautatutakoek euren obrak egiteko, martxoaren 9an. DM taulak izango dira, 488 zentimetroko luzera eta 122 zentimetroko altuerarekin. Euskarriak izango ditu, bertikalki mantentzeko. Lehiaketaren muralen diseinua, ikastetxeko muralaren dimentsioetara egokitu ahal izango da, izan ere, lehiaketaren saria mural hori egitea da.

9. LEHIAKETAN ERABILIKO DIREN MATERIALAK

Lehiaketako muralak egiteko, aerosolak edo pintura plastikoak erabiliko dira, azken hauek brotxak eta arrabolak erabiliz. Aerosolak erabiliz gero, lehiakide bakoitzak edo talde bakoitzak 400 ml.-ko 10 sprai izango ditu eskura, eta inskripzioan agertzen den kartako koloreetatik aukeratu beharko ditu. Parte-hartzaileak berak aukeratu behar izango du kolorea.

Brotxak eta arrabolak erabiliz, pintura plastikoak aukeratzen dituztenentzat, 750 ml.ko 8 pote eskainiko dira, dagokien gamatik aukeratzeko. Inskripzio orrian doa erantsita. Antolatzaileak arduratuko dira brotxak, arrabolak, pinturarako ontziak eta ura emateaz. Aukera bietan, parte-hartzaileek material osagarria ekar dezakete, aerosolak edo pintura, akabera mate bada, eta bakoitzak bere tresnak ekar ditzake.

10. PARTE-HARTZAILEAK

Ekimen honetarako ideiak eman nahi dituen edozein pertsona fisiko edo juridikok har dezake parte, muralak egiteko abilezia erakusten badu lehiaketan. Ez da mugarik egongo adinagatik edo bizilekugatik. Bai taldeka eta bai banaka egin ahal izango da, eta bat eta hiru arteko proiektuak aurkeztea onartu egingo da, parte-hartzaileak proposamen bat baino gehiago aurkeztu nahi badu.

11. DOKUMENTAZIOA

Lehiaketaren egunean egingo diren muralen proportzioetara egokitu beharko da proposamena (luzera, altueraren laukoitza izan beharko da), eta ikastetxean egingo den muralaren dimentsioak kontuan izan beharko dira. Oinarri hauetako bigarren atalean deskribatzen dira. Mural irabazlean agertuko den ideia, Berango Merana Ikastetxe Publikoko hormen dimentsioetara eraman ahal izango da.

Oro har, teknika librea izango da, baina kanpoalderako materialak erabili beharko dira, distirarik gabekoak, aire zabalean ondo kontserbatzen direnak. Kontuan hartuz lehiaketaren egunean aerosolak edo pintura plastikoak erabili ahal izango direla, azken hauek brotxak eta arrabolak erabiliz, txapelduna edo txapeldunak arduratuko dira lehiaketan hautatutako aukera bera erabiltzeaz, murala egitean.

Idea zehazteko, behar besteko dokumentazio grafikoa aurkeztuko da, eta, nahi izanez gero, dokumentazio idatzia aurkeztuko da. JPEG edo PDF artxiboan aurkeztuko da, inskripzio orriarekin batera, eta izan daiteke marrazki edo bozeto xume bat, edo Berango Merana Ikastetxe Publikoko perimetroko horma baten argazkian egindako muntaketa bat, edo hori bera fatxadako argazki batean, edo beste edozein dokumentazio bisuala, proposatzen den obraren ezaugarri nagusiak nahiko zehaztuta geratzeko.

Curriculum artistikoa ere aurkez daiteke beste Word edo PDF artxibo erantsi batean.

12. AURREKONTUA

Berango Merana Ikastetxe Publikoan proiektu irabazlea egiteko, ZAZPI MILA ETA BOSTEHUN EURO emango dira (7.500,00), BEZ barne. Proposatutako ideia egitean, irabazleari materialagatik sor dakizkiokeen gastu guztiak barnean daude.

13. EPAIMAHAIA

Jasotako eskaera guztien artean, epaimahaiak, martxoaren 9ko lehiaketan parte hartuko dutenak aukeratuko ditu. Halaber, lehiaketaren lau finalistak aukeratuko ditu, eta bozketa popularra egingo da martxoaren 10ean. Epaimahaikideak honako hauek izango dira:

- Ana Elorduy. Berangoko Kutlur Etxeko arte irakaslea ingelesez.
- Ixone Legarreta, udal arkitekto aholkularia.
- Jorge López de Guereñu, artista, mural egilea, hirigilea eta irakaslea.

Epaimahaiaren epaia apelaezina izango da.

Proiektuak baloratzen diren bitartean, edozein unetan, lehiakideekin harremanetan jar daiteke epaimahaia, bozetoei buruz hitz egiteko eta azalpenak eskatzeko.

Berangoztarrek lehiaketaren irabazlea aukeratuko dute martxoaren 10ean, bozketa baten bitartez, lau finalisten artean.

14. EPAIMAHAIAREN EPAIA JAKINARAZTEA

Deialdiaren ebazpena posta elektronikoz egingo zaie irabazleari edo irabazleei, txapelduna izendatu barik geratzen ez bada. Bozketa popularraren emaitza, udalaren eta bere kultura sailaren webguneetan argitaratuko da ere, eta hedabideei jakinaraziko zaie.

15. MURALA EGITEKO AUKERATUTAKO OBRA GAUZATZEA

2019ko martxoaren 18tik apirilaren 5era arte egingo da murala Berango Merana Ikastetxe Publikoan. Egileak edo egileek egingo dute, lehiaketaren antolatzaileek eta Berangoko Udalak koordinatuta eta gainbegiratuta, eta lehiaketan erabilitako materialekin egin beharko da, mota eta kalitate berarekin. Materiala, berariaz aire zabalean eusteko modukoa izango da. Lehiaketan lan egingo dutenek klimatologia-egoera txarra dela esaten badute, egiteko epea apirilaren 12ra arte luzatuko litzateke. Lehiaketaren irabazlearen esanetara egongo dira antolatzaileak, aholkuak emateko, lana egiteko beharrezkoa den materialari buruz, beharrezkoak diren aseguruiei buruz, etab. Udalak erabiltzen duen berdintasun logotipoa tximeleta bat da, eta lehiaketan aukeratutako muralean ere agertu beharko da, nahiz eta modu librean interpretatu, eta egilearen edo egileen sormenaren arabera egin.

16. MURALA GAUZATZEKO PROIEKTUA ONARTZEA

Lehiaketaren irabazleak edo irabazleek, proiektu bat aurkeztuko diote udalari, ikastetxeko hormen dimentsioetara egokituz. Halaber, erantzukizun zibileko aseguruia aurkeztuko dute, murala gauzatu ahal izateko. Dokumentazio hau martxoaren 15a baino lehen aurkeztuko da.

17. ORDAINSARIAK ORDAINTZEA

Ordainsariak irabazleari ordainduko zaizkio, murala egin eta gero, bere baliabideak

erabiliz. Murala gauzatzeko epea zorrotz bete beharko da, nahitaez, ordainsariak ordaindu ahal izateko. Lana hasteko edo burutzeko epea betetzen ez bada, edo lehiaketan saritutako obran agertzen zen kalitatera heltzen ez bada, lana eteteko erabakia hartu ahal izango du epaimahaiak.

18. – JABETZA ESKUBIDEAK

Aukeratutako lanak eta saritua, eta lehiaketaren xedea den azken murala, Berango Merana Ikastetxe Publikoan egon ondoren, Berangoko Udalarenak izango dira, eta egileak edo egileek, obren gaineko ustiatze-eskubide guztiak udalari lagako dizkio.

19. – OINARRIAK ONARTZEA ETA EPAIAREN ONDORIOAK

Deialdi honetan parte hartzeak, oinarriak guztiz onartzea dakar.